



# Munduko 10 baso

NAZIO BATUEK 2011. URTEA BASOEN NAZIOARTEKO URTEA izendatu duten honetan, Conservation International erakundeak munduko 10 baso mehatxatuenen zerrenda argitaratu du. Jatorrizko habitataren % 90 edo gehiago galdu dute baso horiek, eta, gutxienez, 1.500 landare-espezie endemiko dituzte. Gainera, Conservation Internationalen arabera, bilioi bat pertsona inguru bizi da 10 baso hauetan edo haien inguruan, basoetako baliabideak zuzenean edo zeharka ustiatuz. ●

## Indo-Burma

Indiako ekialdean eta Txinako hegoaldean jatorrizko baso tropikalen % 5 baino ez da gelditzen. Hango ibai eta padurek ekosistema aberatsak osatzen dituzte; bertan bizi dira munduko ur gezatako arrainik handienetako batzuk. Padurak suntsitu dira arroz-soroak egiteko, ibaietan presak egin dira elektrizitatea sortzeko, eta mangladiak ganba-haztegi bihurtu dira.

ARG.: CONSERVATION INTERNATIONAL/SITHA SOM.





# mehatxatuenak







### Kaliforniako basoak

Sekuoia erraldoien eta azken Kaliforniako kondorren bizilekua. Behinola bertan bizi izan ziren grizzly hartzak desagertuak dira dagoeneko lur hauetatik. Nekazaritza komertzialak kendu dizkio lur gehienak basoari; lur horietan ekoizten da AEBn kontsumitzen diren barazkien erdia. ARG.: WILLIAM CROSSE.



### Afrikako ekialdeko kostako basoak

Zanzibarko kolobo gorria amu turistiko bihurtu da. Baso hauetako hiru tximu endemikoetako bat da. Jatorrizko basoaren % 10 baino ez da gelditzen, eta gelditzen dena oso fragmentatuta dago.

ARG.: ROBIN MOORE/ILCP.





### **Afrikako ekialdeko mendiak**

Arabia Sauditik hasi eta Zimbabwe bitartean dauden mendiek antzeko flora dute. Han daude munduko lakuirik harrigarrienetako batzuk ere. Laku handi horietako biodibertsitatea izugarria da; besteak beste, 617 arrain-espezie endemiko daude. ARG.: ROBIN MOORE/ILCP.



### Filipinak

Munduko lekurik aberatsenetako bat, biodibertsitateari dagokionez. Espezie endemikoz beterik daude Filipinetako basoak: besteak beste, 6.000 landare-espezie eta hainbat hegazti, hala nola Filipinetako arranoa (*Rhacophorus pardalis*), munduko bigarren arrano handiena. ARG.: OLIVIER LANGRAND.

### Hego Amerikako baso atlantikoak

Brasilgo, Paraguaiko, Argentinako eta Uruguaiako baso tropikaletan 20.000 landare-espezie inguru daude, % 40 endemikoak; eta desagertzeko arriskuan dauden dozena-pare bat ornodun.

ARG.: CONSERVATION INTERNATIONAL/JOHN MARTIN.





### **Kaledonia Berria**

Bost landare-familia endemiko daude Kaledonia Berriko basoetan. Han hazten dira ezagutzen den konifera-parasito bakarra eta munduko araukaria-espezieen bi herenak, denak endemikoak. Gaur egun, jatorrizko basoaren % 5 baino ez da gelditzen.

ARG.: BANANAFLO/© ESKUBIDE BATZUK ERRESERBATUTA © ©



### **Txinako hego-mendebaldeko mendiak**

Mendi hauetan bizi da panda handia, kontserbazioaren ikur ezaguna, eta baita haren lehengusu txikia ere, panda gorria (argazkian). Gainera, bertako ibai-sistema izugarri aberatsa da espezieetan. Bertan dago munduko zentral hidroelektrikorik handiena ere, Three Gorges Dam, eta ibai nagusi gehienetan presak egitea dago planifikatuta.

ARG.: CONSERVATION INTERNATIONAL/PIOTR NASKRECKI.





### Sundaland

Borneo eta Sumatra uharte handiak dira nagusi eskualde honetan. Hango basoetan soilik bizi dira orangutanak. Basogintza industrialia (kautxua eta palma-olioa, besteak beste) eta animalien trafikoa dira mehatxu nagusiak. ARG.: CONSERVATION INTERNATIONAL/HAROLDO CASTRO.



### Madagaskar eta Indiako Ozeanoko irlak

Isolamenduan eboluzionatu duten espezieen adibide ugari biltzen dituzte baso hauek. Afrikatik gertu egon arren, espezie erabat desberdinak bizi dira irla hauetan, Madagaskarko 50 lemur-espezieak kasu. Nekazaritza, ehiza, egurraren industria eta meatzaritza hazten ari diren mehatxuak dira.

ARG.: CRISTINA MITTERMEIER/ ILCP.



